



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/14

Ekonomia eta Ogasun batzordeak aho batez abalau dau kirol talde profesionalen tratamendu fiskalaren aldaketea

Gaur goizean Bilbon alkartu dan Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasun batzordeak aho batez onartu dau kirol talde profesionalen tratamendu fiskala aldatzen dauen Foru Arau proiektua. Aldundiak aurkeztu dauen artikulu bakarreko testuak aldatu egingo dau, osokoa berretsi eta gero, Soziedadeen Zergea, irabazi asmorik bako erakundeak zirala ulertzen zanez lehen mailako futbol taldeek eukiezan kenkari jakin batzuei jagokenez.

Aldaketa horren zergaitia, Foru Ogasuna, 2016ko garagarriaren 4ko Europar Batasunaren Ebazpena egokitu behar dala da. Ebazpen horrek Estatuaren laguntza moduan hartzen dau futbol taldeek soziedade anonimoakaz alderatuta lehiatzeko orduan abantailea izatea. PSE-EEko Alexia Castelok gogoratu dauenez, Espainiako Estatuak egin dau daborduko antzeko aldaketea eta orain esparru komunak derrigortzen dauenez, Euskadiko foru ogasunek be pauso bera emon beharko dabe. Oraindino “erabagi” barik dago ebazpen hori dala eta kirol taldeek dirua “itzuli beharko ete deutsien” Foru Ogasunari. Osoko Bilkuran onesten bada, arauak egun horretatik aurrerako zerga epealdietarako izango dau eragina.

PARADISU FISKALEN KONTRAKO NEURRIAK

Batzorde berean Podemos Bizkaiaren Arauz besteko proposamena be eztabaidau da, Bizkaiko Foru Aldundiak paradisu fiskalen kontrako neurri jakin batzuk hartu daizan. Zehatzago esanez, talde moreak eskaerea egin dau, Bizkaiko Batzarrek eskaria egin deioen Foru Aldundiari, “Paradisu fiskaletan egoitzaratuta dagozan edota han egotea justifikatuko leuken jarduera ekonomikorik ez daukien enpresak kontratazino publikotik kanporatzeko”; “Enpresa handien gardentasuna eta kontu emotea bermatzeko”; “Paradisu fiskalakaz egin daitekean edozein eskualdaketearen ganeko zergak jarteko”; eta “Espainiako Diruaren kontrol eta zuritze zerbitzuari informazioa bialdu daigula eskatzeko”.

Bizkaiko Batzar nagusietan ordezkaritza daukien talde gehienek ez dabe ekimena onetsi. EH Bildu izan da Podemosen proposamenaren alde agertu dan bakarra, Arantza Urkaregi batzordekideak onartu dauenez, beste erakunde batzuen eskumenetan sartzea eragin daiketan arren. “Helegite posibleen aurrean kokiltzen bagara, ez dogu inoiz ezer egingo” paradisu fiskalen aurrean, esan dau. “Zeozer egin ahal izango dogu Bizkaitik”, gehitu dau Mikel Isasi Podemoseko batzordekideak, eta, gehitu dauenez, aurkeztutako neurrien paketeak nazinoarteko Oxfam erakundeak emondako aholku gehienak jarraitzen ditu.

EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta Talde Mistoa Podemosen ekimenaren kontra agertu dira, eta bat etorri dira neurri horreek eskumenakaz erlasionautako arazoa planteetan dabela esatean. “Iruzurraren eta paradisu fiskalen kontra burrukau beharragaz bat gatozan arren, neurri horreek geure eskumenen esparrutik kanpo geratzen dira”, adierazo dau Alexia Castelo sozialistak. Bere eretziz, Batzar Nagusiek, araudi mailan, Soziedadeen eta Errentaren zergatan, paradisu fiskaletan aritzen diran enpresen “oinarri zergagarriak murrizteko aukerea gaitzago bihurtzea” bilakatzen daben neurri zehatzak onetsi ditue.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Soziedadeen Zergan eragina daben neurri horreen artean, Castelok hainbat aitatu ditu: Bizkaiko lurraldean aritzen diran enpresen “egoitza presuntzinoa”; “paradisu horreetako eragiketakaz lotutako zerbitzuak” gastu kengarri moduan ez hartzea; “dibidenduen banaketaren eta partaidetzen transmisioaren salbuespena” ez apliketea, ezta “jaubetza industrialaren lagapenetik sortutako errenten murrizketea” be. Gainera, Bizkaiko foru araudiak, –batzordekide sozialistak esan dauenez– paradisu fiskaletan bizi diran pertsonakaz egindako eragiketak merkaduko balioan kontabilizetera eta holango trantsakzinoen oinarri zergagarrietan kopuru jakin batzuk sartzeraz behartzen dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
14/10/2016

La comisión de Economía y Hacienda avala por unanimidad la modificación del tratamiento fiscal de los clubes deportivos profesionales

La comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia, reunida esta mañana en Bilbao, ha respaldado, por unanimidad, el proyecto de Norma Foral que modifica el tratamiento fiscal de los clubes deportivos profesionales. El texto presentado por la Diputación –un artículo único- cambiará, tras su ratificación en pleno, el Impuesto de Sociedades en lo que se refiere a ciertas deducciones que tenían los clubs de fútbol de primera división por ser consideradas entidades sin ánimo de lucro.

El cambio obedece a que la Hacienda foral debe adaptarse a la Decisión de la Comisión Europea, de 4 de julio de 2016, que recogía como ayuda estatal el hecho de que los clubs de fútbol en el Estado español estaban en ventaja competitiva respecto a las sociedades anónimas. Alexia Castelo, del PSE-EE, ha recordado que el Estado español ya ha hecho una modificación similar y ahora el marco común obliga a que también las haciendas forales vascas den el mismo paso. Queda por “determinar” si esta decisión acarreará una “devolución” por parte de los clubs deportivos afectados a la Hacienda foral. De aprobarse por el pleno, la norma surtiría efecto para los períodos impositivos que se devenguen a partir de esa fecha.

MEDIDAS CONTRA PARAÍDOS FISCALES

En la misma comisión, se debatía también una proposición no de norma de Podemos Bizkaia para que la Diputación Foral de Bizkaia tomara medidas concretas contra los paraísos fiscales. En concreto, el grupo morado quería que la Cámara vizcaína instara al Ejecutivo foral a poner en marcha cuatro medidas: “excluir de la contratación pública a empresas que estén radicadas o cuenten con amplia presencia en paraísos fiscales sin actividad económica que lo justifique”; “garantizar la transparencia y rendición de cuentas de las grandes empresas”; “establecer impuestos a cualquier transacción con paraísos fiscales” ; y “exigir que el servicio de blanqueo y control de dinero en España nos mande información”.

La iniciativa ha sido rechazada por la mayoría de los grupos junteros con representación en la Cámara vizcaína. Solo EH Bildu ha apoyado la propuesta de Podemos pese a que las mismas, según ha admitido su apoderada Arantza Urkaregi, supongan invadir competencias de otras instituciones. “Si nos aminalamos por posibles recursos, nunca haremos nada” frente a los paraísos fiscales, ha dicho. “Algo podremos hacer desde Bizkaia”, ha añadido el apoderado de Podemos Mikel Isasi, quien ha señalado que el paquete de medidas presentado sigue en su mayor parte las recomendaciones de la organización internacional Oxfam.

En contra de la iniciativa de Podemos, se han mostrado los grupos de PNV, PSE-EE, PP y Mixto, que han coincidido en señalar que las medidas plantean un problema competencial. “Compartiendo la necesidad de luchar contra el fraude y los paraísos fiscales, estas medidas se escapan de nuestro ámbito competencial”, ha indicado la socialista Alexia Castelo, para quien



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

las Juntas Generales a nivel normativo en los impuestos de Sociedades y Renta han aprobado medidas concretas que pretenden “dificultar la posibilidad de erosionar las bases imponibles” de empresas que operan en paraísos fiscales.

Entre estas medidas, y que afectan al Impuesto de Sociedades, Castelo ha citado la “presunción de residencia” de aquellas empresas que operan principalmente en territorio vizcaíno. El que no se consideren gastos deducibles “aquellos servicios que estén vinculados con operaciones en esos paraísos”. Que no se aplique “la exención de distribución de dividendos y de transmisión de participaciones” y tampoco “la reducción de las rentas derivadas en cesión de propiedad industrial”. Asimismo, la normativa foral vizcaína obliga –según ha dicho- a contabilizar “a valor de mercado las operaciones realizadas con personas residentes en paraísos fiscales y a la inclusión de determinadas cantidades en las bases imponibles en este tipo de transacciones”.